



Docentiaz

DOCENTIAZ

IRAKASLANA EBALUATZEKO PROGRAMA

DOCENTIAZ programaren hamargarren deialdian parte hartu zuten Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeari zuzendutako iritzi-inkestan oinarritutako txostena

2020ko azaroa



Aurkibidea

Orria

- | | | |
|----|---------------------|---|
| 1. | Sarrera | 1 |
| 2. | Erantzunen analisia | 2 |

SARRERA

DOCENTIAZ UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa hezitzailea da.

Deialdi honetan, DOCENTIAZ programak borondatezkoa izaten jarraitzen du, eta irakaslana ebaluatzeko hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaskuntzari buruzko inkesta bat betetzen) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakasleen lanaren alderdi formalei buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) irakasleei zuzendutako amaierako txostena egiten du.

DOCENTIAZ programaren hamargarren deialdia 2020ko otsailean jarri zen abian, ohiko bideetatik ezagutarazi zen, eta 2020ko urrian amaitu da.

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) ebaluazio bat egin behar du, goian aipatutako hiru informazio iturrietan oinarrituta. Batzorde hau ondorengoek osatzen dute: irakaskuntzan ospea duten eta ebaluazio prozesuak ezagutzen dituzten UPV/EHUko irakasleek, gure unibertsitatean ikasi duten eta espediente aipagarria duten hirugarren zikloko ikasleek, eta UNIBASQek proposatutako UPV/EHUtik kanpoko hiru kidek.

Jarraian, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kideei egindako galdera-sortatik ateratako emaitzak ikus daitezke. Galdera-sorta, 2020ko uztailean, telematikoki bidali zitzairen eta modu anonimoan erantzun zioten.

Deialdi honetan, 3 ikasle izan dira ebaluatzaile: 2 Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordean, eta 1 aldi baterako izaeraz izendatuta. Ebaluazio Batzordean parte hartu duten ikasleen kopurua txikia denez, haien iritziak gainerako ebaluatzaileekin batera aztertu dira.



ERANTZUNEN ANALISIA


Galdetegiak likert mota neurriaren eskala galdera dikotomiko, kategorizatu, edo irekiekin nahasten du. DOCENTIAZ programaren garapenari buruzko 19 galdera ditu, horietako 10 atal irekiak izanik, hortaz, pisu kualitatiboa oso nabarmena da galdetegian.

Galdera-sorta betetzeko gonbidapena egin zitzaien IEUBeko kideetatik, % 67,65ek erantzun zuten.

Jasotako galdetegien bidez bildutako informazioa, txosten honetara eramateko, edukia bi zati ezberdinetan banatu da: lehenik, bai galdera bai erantzun motagatik informazioaren transmisioa era grafiko eta kuantitatiboan posible egiten duten item haiek; jarraian, batera eta kualitatiboki, biltzen da jasotako iritzien adierazgarritzat hartu den informazioa, errepikatzeagatik nahiz haren edukiagatik.


1. itema.- Mesedez aukeratu zure jakintza arloa:

- Artea eta Giza Zientziak	4	%20
- Zientziak	4	%20
- Osasun Zientziak	2	%10
- Gizarte eta Lege Zientziak	6	%30
- Ingeniaritza eta Arkitektura	4	%20
Jasotako erantzunak	20	%100



3. itema.- DOCENTIAZ programan dimentsioen pisua ondo banatuta dago.

Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	0	%0
Gutxi gorabehera ados nago	2	%13
Nahiko ados nago	4	%27
Erabat ados nago	9	%60
Jasotako erantzunak	15	%100




Ondorioa: %87k Nahiko ados nago eta Erabat ados nago aukeratu zuten; Ez nago ados eta Gutxi gorabehera ados nago ez ziren aukeratuak izan.



5. itema.- Irakaslanaren berri emateko zehaztu diren iritzi-iturri hauek egokiak dira.

	Ez nago batere ados	Ez nago ados	Gutxi gorabehera ados nago	Nahiko ados nago	Erabat ados nago
Irakasleak	%0	%0	%13	%47	%40
Ikastegiko Kalitate Batzordea	%13	%7	%27	%33	%20
Ikasleak (iritziari buruzko inkestaren bidez)	%0	%7	%13	%20	%60


■ Ez nago batere ados ■ Ez nago ados ■ Gutxi gorabehera ados nago ■ Nahiko ados nago ■ Erabat ados nago



Ondorioa: ebaluatzaileek uste dute ikasleengandik datorren informazio-iturria dela egokiena irakaskuntza-jarduerari buruzko informazioa emateko.

6. itema.- Beste informazio-iturriren bat sartzea hartzen duzu beharrezkotzat:


Bai	3	%20
Ez	12	%80
Jasotako erantzunak	15	%100



Ondorioa: ebaluatzaileek ez dute beharrezkotzat jotzen beste informazio-iturririk sartzea.

8. itema.- Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan:


Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	1	%7
Gutxi gorabehera ados nago	2	%13
Nahiko ados nago	6	%40
Erabat ados nago	6	%40
Jasotako erantzunak	15	%100



Ondorioa: ebaluatzaileen % 80k ados edo nahikoa ados aukeratu zuten. Ez nago batere ados aukera ez zen hautatu.

11. itema.- Protokoloa behar adina zehaztuta dago:


Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	0	%0
Gutxi gorabehera ados nago	2	%13
Nahiko ados nago	3	%20
Erabat ados nago	10	%67
Jasotako erantzunak	15	%100



Ondorioa: % 87k nahiko ados edo erabat ados aukeratu zuten. Ez nago batere ados eta ez nago ados aukerak ez ziren hautatu.

13. itema.- Lortu nahi den bezala, eta irakaslanaren balorazioan kategorizazio berria kontuan hartuta, DOCENTIAZ programak irakasleak bereizten ditu haien irakaskuntza kalitatea kontuan hartuta:


Kategoria	Erantzunak	Porzentaia
Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	0	%0
Gutxi gorabehera ados nago	3	%20
Nahiko ados nago	6	%40
Erabat ados nago	6	%40
Jasotako erantzunak	15	%100



Ondorioa: % 80k ados edo nahiko ados aukeratu zuten. Ez nago batere ados eta ez nago ados aukerak ez ziren hautatu.


15. itema.- Azaldu zein izan den erabilitako denbora, batez beste, espedienteak ebaluatzerakoan (ordutan neurtuta):

Erabilitako denbora	(15 erantzun)	%
1 ordu	0	%0
2 ordu	3	%20
3 ordu	6	%40
4 ordu	4	%27
5 ordu	2	%13
Batez bestekoa:	3,33%	



16 itema.- Dimentsioren bat aldatuko zenuke?


Bai	8	%53
Ez	7	%47
Jasotako erantzunak	15	%100



Ondorioa: Batzordea banatuta dago gai horri dagokionez. Behean zehazten da zein aldatu beharko liratekeen.

17 itema.- Azaldu zein izango litzatekeen:

0 Dimentsioa	1	%13
1 Dimentsioa	4	%50
2 Dimentsioa	3	%38
3 Dimentsioa	5	%63
Jasotako erantzunak	8	%100



Ondorioa: aurreko itemean dimentsioren bat aldatuko zutela erantzun duten ebaluatzaileek hirugarren dimentsioa (% 63) eta lehen dimentsioa (% 50) aipatu dituzte aldatu beharreko dimentsiotzat.



Jarraian, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak 10. Deialdiaren Docentiaz programari egindako hausnarketen eta hobekuntzen proposamenaren laburpena batzen da.

2. itema.- Azal ezazu DOCENTIAZ programatik ken ahal den adierazle bat. Mesedez, argudiatu zure erantzuna:

- 3. adierazlea zaila da, korapilatsua.
- 13. eta 28. adierazleetan (gaitasunen, metodologiaren, jardueren eta ebaluazioaren arteko koherentzia), espediente gehienetan, irakasleek ez dute harreman hori argi erakusten.
- 24. adierazlea egiaztatzea zaila izan daiteke. Egoera batzuetan, irakasgaiaren ezaugarriengatik (erabat praktikoa) edo egutegiaren konfigurazioagatik, zaila da praktika eta teoria txandakatzea eta bereizita aurkeztea.

4. itema.- Azal ezazu egin litekeen aldaketa bat (Dimentsioen pisua ondo banatuta dago DOCENTIAZ programan):

1. Dimentsioa

- Dimentsio horrek pisu handiegia du.

2. Dimentsioa

- 2.1 itemak pisu txikiagoa izan beharko luke. Baliteke irakaslearekin zerikusirik ez duten faktoreak egotea (hala nola ikasgai horren egoera ikasketa-planean, lauhileko bakar batean eman beharreko kreditu kopuru handia...), ikasleei irakasgai horretarako ezarritako gaitasunak eskuratzea zailtzen dietenak.
- 2.2 adierazlea, inkestaren 25. itema kontuan hartzeaz gain, inkestaren beste alderdi batzuk ere kontuan hartu beharko lirатеke, 29-32 adierazleetan kontuan hartuta, azken horiei pisu handiagoa emanez.
- Ikasleen iritziak pisu handiagoa izan beharko luke.

3. Dimentsioa

- Zuzendutako lan akademikoen pisua handitzea, batez ere, MAL eta tesiak.

Programari, orokorrean:

- Ez dira beharrezkoak



7. itema.- Arrazoitu zure erantzuna, mesedez (Beste informazio-iturriren bat sartzea hartzen duzu beharrezkotzat?):

- Kanpo-ebaluazioak.
- Eskoletara aurrez aurre egindako elkarrizketa eta/edo bisita beharrezko alderdia da irakaskuntza-jardunaren errealitatea jasotzeko.

9. itema.- Adierazi alderdi negatibo bat (Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan):

- Aplikazioa batzuetan motela da edo ez du sartzen uzten.
- Aplikazioa zaila da eta diseinua ez da oso intuitiboa.
- Espediente bakoitzeko artxibo bakoitza banan-banan deskargatu behar izatea.
- Ebaluazioa egiteko behar diren datu batzuk amaierako txostenetik lortzen dira, eta beste batzuk autotxostenetik.

10. itema.- Adierazi hobekuntza bat (Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan):

- Aplikazio informatikoa hobetzea. Informazio guztia gunere berean izatea.
- Espediente bakoitzeko dokumentu guztiak aldi berean deskargatzen laguntzea.
- Sarearen gaitasuna eta abiadura hobetzea.
- BBCren ebaluatzaileen arteko komunikazioei eustea, oraingo deialdiaren esperientzia ona dela eta.

12. itema.- Adierazi protokoloan aurkitu duzun hutsuneraren bat:

- Proiektzio-jarduera jakin batzuetan eman beharreko puntuazioaren xehetasuna handitzea.

14. itema.- Adierazi zer neurri litekeen lagungarri, bereizgarritasun hori lortzeko, irakaskuntza kalitateari erreparatuta (lortu nahi den bezala, DOCENTIAZ programak irakasleak bereizten ditu haien irakaskuntza kalitatea kontuan hartuta):

- Irakasleei elkarrizketa egitea eta/edo eskoletara aurrez aurre joatea, irakasleen jardunaren ebidentzia jasotzeko.
- Aurkeztutako irakaskuntza-gida ikasgelan benetan proportzionatua izan delako ebidentziak lortzea.
- Irakasleen irakaskuntza-kalitate indibidualetik eratortzen ez diren merezimenduak aitortzea saihesteko neurriak.



18. itema.- Azaldu proposatuko zenukeen aldaketa bat, eta dagokion dimentsioa:

- 0. dimentsioa: zuzenketa-faktoreak berrikustea.
- 1. dimentsioa: pisua murriztea, 13 eta 28 adierazleak ezabatzea, 1.2 eta 1.2 ataletan errepikatuta agertzen diren adierazleak kentzea, pisua ez bikoizteko.
- 2. dimentsioa: ikasleen iritzi-inkestaren beste dimentsio batzuk sartzea.
- 3. dimentsioa: zaharkituta geratu diren atal batzuk eguneratzea eta berri batzuk sartzea.

19. itema.- DOCENTIAZ programa hobetu nahian, gomendagarri litzateke honakoez gogoeta egitea:

- Aplikazioan automatikoki jasotzen diren argitalpenak iragaztea.
- Atal bakoitzean lortzen diren balorazioak ikasleen iritzi-inkestarekin alderatzea.
- Ikasgelan irakaskuntza-jardueraren balorazio presentziala egitera joatea.
- Faktore zuzentzaileak berriz ebaluatzea.
- 3.2 ataleko puntuazioa berrikustea.
- Ikasleentzako gida ikasgelan aurkeztu izanaren ebidentziak lortzea.
- Irakasleei Docentiaz programan baloratzen dena transmititzea.
- Irakasgaiaren irakaskuntza-gida ofizialak ezartzen duen kortsea, batzuetan irakaslearen irakaskuntza-proposamena modu negatiboan baldintzatzen duena.